T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

DEIALDIA, ETXEZ ETXEKO ARRETA LANTALDEKO (EEAL) ARDURADUNAREN 1 PLAZA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKOA, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko azaroaren 9an, deialdia onestea erabaki zuen, oinarri hauekin bat:

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Etxez Etxeko Arreta Lantaldeko arduradunaren 1 plaza, funtzionario araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko. Deialdia honako hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena; 7/2025 Foru Legea, 2025eko ekainaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituena; 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duena; aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta deialdi honetako oinarriak.

1.2. Plaza, Gizarte Ekintzako Alorrari atxikia eta plantilla organikoan 1-106500-1 zenbakiarekin identifikatua, txanda irekian beteko da:

1.3. Lanpostuan bete beharreko eginkizunak:

ZUZENDARITZA-EGINKIZUNAK

- EEAL zerbitzuko langile guztien kudeaketa eta zuzendaritza.
- Lan-kontratudunen hitzarmena aplikatzea.
- Kontratazio-premiei eta antolaketa-gorabeherei erreparatzea (laneko absentziak, ordezkapenak, etab.) arreta etetea saihesteko.
- Lantaldearendako laguntza teknikoa eta eguneratze profesionala.
- Beharrak identifikatzea zerbitzua hobetu ahal izateko.
- Beharren araberako prestakuntza-ekintzak programatzea.
- Zerbitzuak behar bezala funtzionatzen duela gainbegiratzea.
- Bitartekaritza eta barne-gatazkak konpontzea. Lan-giro egokia mantentzea eta, ahal den neurrian, zerbitzuko atalen arteko gatazkak prebenitzea.
- Diziplina-espedienteak: beharrezko ikerketak eta txostenak egitea, eta sail juridikora eta langileen sailera bideratzea.
- Autonomia programako eta Gizarte Ekintza Arloko zuzendaritzarekin bilerak egitea, hala eskatzen zaionean.

ZERBITZUAREN PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOKO EGINKIZUNAK

A) Administrazioa eta nominak:

- Administrazio-taldea gainbegiratzea eta lanean hasteko eta kontratazio-zerrendak kudeatzeko aplikatu beharreko prozedurak eta araudiak betetzen direla zaintzea.
- Kontratazioak gainbegiratzea eta baliozkotzea.
- Ordainsarien arloko osagarri gehigarriak baliozkotzea (ordu osagarriak, gaueko lana, aparteko orduak, etab.), hileko nomina behar bezala egiteko.

B) Koordinazio-taldea:

- Jarraibide teknikoak, jarduketa-protokoloak eta esku-hartzerako aurreikusitako baldintzak betetzen direla gainbegiratzea, besteak beste, honako hauek:
    - Zuzeneko arretako koadranteak banatu eta esleitzea, zerbitzuaren beharren, erabiltzaileen profilaren eta abarren arabera, zerbitzuaren jarraitutasun profesionala eta estaldura egokia lortzeko.
    - Taldearen jarraipen teknikoa eta antolakuntzakoa egitea, eta agindutako zereginak behar bezala egiten direla, eta ordutegiak, protokoloak eta funtzionamendu-arauak betetzen direla zaintzea.
    - Profesionalen, erabiltzaileen eta familien arteko harremanari eragiten dioten gorabeherak konpontzea, eta esku-hartzea errespetuzkoa, koordinatua eta pertsonan oinarritua izan dadin sustatzea.
    - Talde-bilerak dinamizatzea, kasuak berrikusteko, esku-hartzeko irizpideak bateratzeko, jarraibideak transmititzeko eta zerbitzua etengabe hobetzen laguntzeko.

C) Gorabeheretarako eta harrerarako taldea:

- Hautemandako gorabeheren erregistroa, bideratzea eta dokumentazioa gainbegiratzea.
- Zerbitzu osagarrien inguruan, besteak beste, elikaduran, garbitegian eta laguntza teknikoen maileguan sortutako gorabeheren erregistroa, bideratzea eta dokumentazioa behar bezala gainbegiratzen direla zaintzea.

1.4. Izendapenak eta plazaz jabetzeak nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko dute izendatua, Iruñeko Udaleko funtzionarioei buruz indarra duten xedapenetan adierazitako eskubide eta betebehar guztiekin, eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko zaio, eta alta emanen bertan, aipatu araubide horretan aurreikusitako babesaren pean.

Aurrekoa gorabehera, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko Bederatzigarren Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan ezarritakoarekin bat, baldin eta Montepio bateko eskubide pasiboen araubidean afiliatuta badaude, aukeratzen ahalko dute Montepio horretan geratzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak araututako eskubide pasiboen araubidearen babespean, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatzea.

2. Betekizunak.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

2.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko:

2.1.1. Izangai guztiek bete beharreko betekizunak:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, baldin eta zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda independizatu ez badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Unibertsitateko graduko, ingeniaritzako, arkitekturako edo horien baliokidetzat jotzen den titulazioa edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian eskuratutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaiturik edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.

2.2. Betekizun horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta eduki beharko dituzte izangaiek, eta plazaren jabetza hartu arte.

2.3. Izendatuak izateko proposatzen diren izangaiek deialdiaren oinarrietan aurreikusitako moduan eta epean frogatu beharko dute aurreko baldintzak betetzen dituztela, salbu eta 3.4 oinarrian ezarritako dokumentazioaren kasuan, dokumentazio hori aurkeztu beharko baita deialdian parte hartzeko eskaerarekin batera.

3. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hogei egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea modu telematikoan aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamena.

Desgaitasunen bat duten izangaiek denboraren nahiz bitartekoen egokitzapenak eskatuz gero horiek beharrezkoak diren probetarako, hala jakinarazi beharko dute eskabidean, eta zehaztu, horretarako prestatutako tokian, zein den eskatutako egokitzapena edo zein diren eskatutako denboraren edo bitartekoen doikuntzak. Horretarako, izangaiak egoki jotzen dituen agiriak aurkezten ahalko ditu eskabidea aurkezteko unean, 3.4 apartatuan ezarritakoarekin bat.

3.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa 26 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

3.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

3.4.1. Eskabidea aurkezteko unean, izangaiek eskaneatuta aurkeztu beharko dute honako dokumentazio hau:

- 2.1.1.c oinarrian galdatutako titulazio akademikoa.
- Alegatutako merezimenduen banakako zerrenda, II. eranskineko apartatuen arabera ordenatuta, eta eranskin horretan eskatzen diren justifikazio-agiriak.

Nahi duenak, eskabidea aurkezteko unean, kudeatzaileari baimena ematen ahalko dio titulua Hezkuntza Ministerioaren Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuan kontsultatzeko, baina aukera horrek ez du beti bermatzen egiaztatuko denik. Hori gertatzen baldin bada eta izangaiak ez badu titulazioaren kopiarik aurkezten, onartuen zerrendatik kanpo geratuko da.

Atzerrian eskuratutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

3.4.2. % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak emandako desgaitasun maila onartzen duen ebazpena aurkeztuta edo % 33ko edo hortik gorako desgaitasunaren aitorpena eskatu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztuta.

3.5. Onartuak izateko baldintzak frogatzeko eskatzen diren agiriak aurkezten ez badira edo akatsak konpongarriak badira, 4.2 oinarrian aurreikusitako epean zuzentzen ahalko dira. Arrazoi horiek direla eta, izangaiak soilik baztertzen ahalko dira baldin eta epe hori igarota akatsa zuzendu ez badute, edo ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez badute.

Dokumentazio-akatsak zuzentzeak ez du baldintzak betetzen direla egiaztatzeko biderik emanen, baldin eta baldintza horiek 2.2 oinarriaren arabera eduki behar ziren dataren ondotik eskuratu badira.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte (egun hori barne) lortutako merezimenduak soilik baloratuko dira.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

3.6. Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

3.7. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume izangaiek baldintza hori egiaztatu beharko dute, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial aurkeztuz, edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkeztuz, non adieraziko baita demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela. Halaber, genero-indarkeriazko egoerak egiaztatzen ahalko dira gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako administrazio publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiriaren eta txostenaren bidez.

4. Izangaiak onestea.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta deialdiaren fitxan argitara dadin aginduko du, Udalaren webgunean.

4.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute hamar egun balioduneko epean, behin-behineko zerrenda deialdiaren web-fitxan argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina zenbatuta, erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta haien gainean ebatzi ondoren, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta deialdiaren web-fitxan argitara dadin aginduko.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

4.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi bertan ageri direnei aitortzen zaienik betetzen dituztela ebazpen honen bidez iragartzen den prozeduran eskatutako betekizunak. Hautapen-prozedura gainditu ondoren izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzen denean egiaztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, interesdunek galdu eginen dituzte prozedura honetan parte hartzeagatik izaten ahal dituzten eskubide guztiak, ezertan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Rubén Unanua Ruiz. Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaiburu ordezkoa: Elian Peña Guerrero. Iruñeko Udaleko Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako eta Kultur Aniztasuneko Alorreko zuzendaria.
Epaimahaikidea: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendaria.

Epaimahaikide ordezkoa: Arantxa Campo Mayo, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaikidea: Margot Moreno Fernández, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko idazkari teknikoa.

Epaimahaikide ordezkoa: Juan José Gómez Jiménez, Iruñeko Udalaren Gizarte Ekintzako Alorraren Norberaren Autonomiarako programaren arduraduna.
Epaimahaikidea: Francisco Asís Barbera Bustamante, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Raúl Imaz Martinez, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.
Idazkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoek, kontuan harturik ordezko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

5.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek laguntza emanen diote epaimahaiari, betiere beraien espezialitate teknikoei bakarrik helduta.

6. Lehiaketa-oposizioaren garapena.

6.1 Lehiaketaldia: gehienez, 20 puntu.

Izangaiei II. eranskinean agertzen den baremoaren arabera baloratuko zaizkie merezimenduak.

Lehiaketaldiaren behin-behineko emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 5 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

6.2. Oposizioaldia **2027ko otsailetik** aurrera hasiko da.

6.2.1. Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko emanen den ebazpenean zehaztuko dira oposizioko proba egiteko tokia, eguna eta ordua.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

6.2.2. Lehen proba

Oposizioak bi proba izanen ditu. Lehen probak bi atal izanen ditu:

a) I. atala: test erako galdetegia.

Ariketa teorikoa eta praktikoa izanen da. Izangaiek test erako 100 galdera erantzun beharko dituzte gehienez ere, idatziz, 120 minutuko tartean, gehienez, deialdi honen I. eranskinean jasotako gaitegiko gaiei buruz. Galdera bakoitzak erantzun posible batzuk izanen ditu aukeratzeko, baina bat bakarra izanen da baliozkoa. Proba egin aurretik zehaztuko dira proba hori balioesteko irizpideak eta hainbat erantzun-aukera dituzten galderetan akatsak nola zigortuko diren.

Ariketa honetan gehienez ere 30 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geldituko dira ariketan gutxienez 15 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

b) II. atala: bi kasu teoriko-praktiko ebaztea.

Ariketa teoriko-praktikoa: idatziz eta ordenagailuz ebatzi beharko dira epaimahaiak deialdi honen I. eranskineko gaitegiari buruz proposatutako bi kasu praktiko. Garatzeko galderak izanen dira. Epaimahaiak zehaztuko du izangaiek zenbat denbora izanen duten ariketa egiteko.

Proba honetan gehienez ere 35 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geldituko dira ariketan gutxienez 17,5 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

II. ataleko ariketaren gehieneko iraupena adieraziko du kalifikazio-epaimahaiak, hasi aurretik.

Lehen probako bi atalak egun bakarrean edo bi egunetan egiten ahalko dira. Epaimahaiak zehaztuko du noiz.

6.2.3. Bigarren proba: gaitasun pertsonalak ebaluatzeko probak

Nortasun orokorreko, lan-gaitasunetako edo trebetasuneko probak egin beharko dira, izangaiak lanpostuaren gaitasun-profilaren eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren zehazteko.

Nafarroako Administrazio Publikoko Institutuak eginen ditu probak, eta haien balorazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarendako.

Bigarren proba hau egiteko honako hauek soilik onartuko dira: lehen probako bi atalak gainditu dituztenen artean, lehen probako kalifikazioak batuta guztizko puntuaziorik onena lortu duten 30 izangaiak. 30. tokian puntuazio bera duten izangai bat baino gehiago baleude, horiek denak onetsiko dira. Gainontzeko izangaiak deialditik kanpo geratuko dira.

Proba honen puntuazioa 15 puntukoa izanen da, gehienez ere. Bazterturik geldituko dira gehieneko puntuazio globalaren erdia (7,5 puntu), gutxienez, lortzen ez duten izangaiak.

Proba egin aurretik, plazaren gaitasun-profila jakinaraziko zaie parte-hartzaileei, deialdiaren web-fitxan (www.pamplona.es/eu helbidean).

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

6.3. Izangaiak nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira. Oposiziotik baztertuko dira iragarritako egunean, orduan eta tokian agertzen ez diren izangaiak eta aipatu diren agirien bidez identifikatzen ez direnak.

6.4. Deialdiko I. eranskinean adierazten diren gaiei buruzkoa izanen da oposizioko proba, eta deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera eskatuko dira gai guztiak.

6.5. Hautaprobak egin bitartean, behar diren egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

6.6. Probak amaituta, epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu), deialdiaren laburpenean, argitaratuko ditu izangaiek erdietsitako puntuazioak, eta 5 egun balioduneko epea emanen du interesdunek balioespenei buruz erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

7. Gainditu dutenen zerrenda.

7.1. Behin hautaprobak bukatuta, kalifikazio-epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratuko du probak gainditu dituzten izangaien zerrenda, oposizioan lortutako kalifikazioekin eta eskuratutako puntuazio-hurrenkerarekin bat, eta zerrenda hori Giza Baliabideetako zuzendariari helaraziko dio, betekizunak egiaztatu eta plaza hutsa aukeratzeko izapideak egin ditzan.

7.2. Amaierako emaitzetan puntu berdinketarik gertatuz gero, lehen probaren II. atalean puntuazio handiagoa lortu dutenen alde ebatziko da.

Halere berdinketa ez bada hausten, horretarako iragarriko den zozketa bakarraren bidez ebatziko da.

8. Izendapen-proposamena eta agiriak aurkeztea.

8.1. Epaimahaiak Tokiko Gobernu Batzarrari igorriko dio izendapen-proposamena, espediente osoarekin batera, probak gainditu dituen izangaia izendatze aldera, deialdian jasotako plaza kopuruaren arabera.

Aipatutako izendapen-proposamena Udalaren webgunean argitaratuko da, deialdiaren fitxan.

8.2. Proposatzen den izangaiak agiri hauek aurkeztuko ditu Iruñeko Udalaren Erregistro Orokorraren bidez, izendapen-proposamena Udalaren webguneko fitxan argitaratu ondoko 10 egun balioduneko epean:

8.2.1. Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak ez diren izangaiak:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiri baliokidearena.

b) Iruñeko Udaleko zerbitzu medikoek egindako txostena, lanpostuaren eginkizunetan aritzea eragozten dion eritasun edo arazo fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatuta.

c) Zinpeko edo zinezko adierazpena, eginkizun publikoetarako ezgaiturik edo gabeturik ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan ez dela adierazita.

d) Zin egiteko edo hitza emateko agiria Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta Legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela adierazita.

8.2.2. Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiak. Desgaitasun hori deialdi honen xede den lanpostuarekin bateragarria dela egiaztatzen duen agiria ofizioz eginen dute balioespen- eta orientazio-talde eskudunek, eta espedienteari erantsiko zaio.

8.3. Agiri horiek aipatu epean –behar bezala justifikatuta egon behar duten ezinbesteko kasuetan salbu– aurkezten ez dituztenak eta deialdiaren 2. oinarrian eskatutako betekizunen bat betetzea egiaztatzen ez dutenak ezin izanen dira izendatuak izan, eta haien egintza guztiak baliogabeturik geldituko dira, betiere ezertan galarazi gabe haien eskabideetan egindako faltsukeriagatik legokiekeen erantzukizuna.

8.4. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Tokiko Gobernu Batzarrak hutsunea beteko du oposizioa gainditu dutenen zerrendan, hots, 7. oinarrian aipatzen den horretan, hurren dagoen eta baldintzak betetzen dituen izangaiarekin, aurreko apartatuetan adierazitako prozedura bera baliatuta.

8.5. Deialdiaren xedezko lanposturako betekizunak eta baldintzak egiaztatzekoa ez den baina Iruñeko Udalak bere eskumenak gauzatuz eskatzen ahal duen beste edozein agiri eskatuko zaio proposatutako izangaiari, eta hark aurkeztuko du, deialdiaren 8.2 apartatuan ezarritakoarekin bat.

9. Izendapena eta plazaz jabetzea.

9.1. Tokiko Gobernu Batzarrak, erabaki bidez, Iruñeko Udaleko funtzionario izendatuko du, lanpostuan aritzeko, eta lanpostu hutsa esleituko dio aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaiari.

9.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta izendatutakoak izendapen-ebazpenean horretarako ezartzen den egunean hartu beharko du plazaren jabetza.

Epe horretan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, plazaren jabetza hartzen ez duenak Iruñeko Udaleko funtzionario bilakatzeko eskubide guztiak galduko ditu. Hala bada, deialdiaren 8.4 apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

9.3. Izangaiak funtzionario bihurtu eta, plazan batere aritu gabe, zuzenean eta beraiek eskatuta borondatezko eszedentzia ematen bazaie plazaren jabetza hartzen duten egunetik beretik –indarreko araudian ezarritako kasuetan–, kasuan kasuko plaza hutsa ere deialdiaren 8.4 apartatuan xedatzen den moduan beteko da.

9.4. Aurreko bi apartatuetan aipatutako kasuetan, ez da aldatuko izendapenaren aurretik egindako plaza hutsaren hautua, eta funtzionario berriari esleituko zaio zuzenean egoera horien ondoriozko plaza.

10. Jarduketen publikotasuna.

Ezertan galarazi gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez modu ofizialean argitaratu beharreko izapideak, www.pamplona.es/eu udal-webgunean argitaratuko dira, deialdiaren fitxan, ariketen deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak eman beharreko ebazpenen eta jarduketen gaineko informazioa eta interesdunendako jakingarriak izaten ahal diren argibide orokor guztiak.

11. Aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak.

11.1. Bat etorrita Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin, oinarri honetan ezarritako prozedurarekin, eta 2017-2019 aldirako Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazio-araubidean kontratatutako langileen lan-baldintzei buruzko Hitzarmenaren III. eranskinean jasotako prozedurarekin –non arautzen baita Iruñeko Udaleko langileen administrazio-araubideko kontratazioa–, Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpenaren bidez onetsiko dira aldi baterako kontratazioetarako zerrenda hauek, hautapen-prozesuan parte hartu eta plazarik eskuratu ez duten izangaiekin:

a) Plazarik lortu ez, baina oposizioa gainditu duten izangaien zerrenda.

b) Hautapen-prozesua gainditu ez, baina hautapen-prozesuko lehen proba (I. eta II. atala) gainditu duten izangaien zerrenda.

c) Hautapen-prozesuko lehen probaren I. atalean ezarritako gehieneko puntuazioaren % 30 gutxienez lortu duten izangaien zerrenda.

Aldi baterako kontratazio-zerrendak Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpenaren bidez onetsiko dira.

Kontrataziorako deitutako izangaiek egiaztatu beharko dute deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituztela kontratua egiteko unean.

11.2. Deialdian eskatutako betekizunak sartzeko prozedurako eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bertan bete behar direla ulertuko da, eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazio-aldiak iraun bitartean.

11,3. Aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko dira.

11.4. Oposizioa gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendan, hautapen-prozesuan lortutako puntuazio altuenaren araberakoa izanen da izangaien hurrenkera.
Halaber, plazarik eskuratu ez eta oposizioa gainditu ez dutenen zerrendan izangaien hurrenkera probaren I. atalean erdietsitako puntuaziorik handienaren arabera zehaztuko da.

Berdinketarik bada, deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat ebatziko dira.

11.5. Aurreko apartatuan ezarritako hurrenkerari dagokionez, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men eginen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendan, hiru plazatik bat (lehena) gordeko da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten zerrendako pertsonendako, baldin eta dagozkien hautaprobak gainditu eta dagozkien zeregin eta funtzioekin bateragarri direla egiaztatzen badute, betiere lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men eginen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gainditu badituzte eta haien egoera frogatzen badute.

12. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen, haren oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2026ko azaroaren 9an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

I. ERANSKINA

GAITEGIA

Gaitegi orokorra:

Tema 1.- 1978ko Espainiako Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

Tema 2.- 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa: Atariko titulua eta II. titulua. Nafarroaren ahalmenak eta eskumenak.

Tema 3.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Beharrezko udal-organoen antolakuntza eta jarduera (X. titulua, II. kapitulua). Alkatetzaren 2024ko urtarrilaren 15eko Dekretua, DAL 15-ENE-24 (3/AL), Iruñeko Udaleko Udal Antolaketari buruzkoa, 2024ko otsailaren 12ko 31.Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean indarrean zeuden aldaketak barne hartzen dituena.

Tema 4.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: Atariko titulua. Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketa-printzipioak eta funtzionamendua. III. titulua. Administrazioarteko harremanak.

Tema 5.- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Funtzionario publikoak. III. titulua: Aldi baterako langileak. IV. titulua: Kontratatutako langileak.

Tema 6.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedurari buruzko xedapen orokorrak. I. titulua: Prozeduran interesdun direnak. II. titulua: Administrazio publikoen jarduera: jarduketa-arau orokorrak; zehaztapenak eta epeak. III. titulua: Administrazio-egintzak: Administrazio-egintzen betekizunak. Egintzen efikazia. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. IV. titulua. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak: Prozeduraren bermeak. Prozeduraren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Betetzea. V. titulua. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea: ofiziozko berrikuspena eta administrazio-errekurtsoak.

Tema 7.- 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duena.

Tema 8.- Iruñeko Udaleko Administrazio prozedura erkidea eta araubide juridiko elektronikoa arautzen dituen Ordenantza.

Tema 9.- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Gardentasuna:

Gardentasuna jarduera publikoan eta publizitate aktiboa. III. titulua: Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: arau orokorrak, hura gauzatzeko prozedura eta aurkaratze-araubidea. VI. titulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

Tema 10.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Datuak babesteko printzipioak. III. titulua: Pertsonen eskubideak.

Tema 11.- Genero-berdintasuna: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako. Atariko titulua. I. titulua: Berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren kontrako babesa. II. titulua: Berdintasunerako politika publikoak. Printzipio orokorrak. V. titulua: Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan (I., II. eta III. kapituluak). 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

Tema 12.- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Atariko titulua eta I. titulua: Kontratistak. Kontratu-tipologia eta araubide juridikoa. Kontratu publikoen kontratu-kudeaketaren printzipioak eta arauak. Publikotasun-arauak eta esleipen-prozedurak. Kontratuak gauzatzea. II. titulua: Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuen arau berariazkoak.

Tema 13.- Udal-aurrekontua eta langileriako gastuen aurrekontuaren kudeaketa. 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa: aurrekontua egitea, onespena eta exekuzioa. Langileriako kredituak: izatea, nahikotasuna eta aldaketak. Gastuaren exekuzioko eta kontroleko faseak. Iruñeko Udalaren 2026ko ekitaldirako aurrekontua eta exekuzio-oinarriak, batik bat langileria-gastuei dagokienez.

Tema 14.- Iruñeko Udalaren Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia: Diagnostikoa eta Ekintza Plana.

Tema 15.- Informatika-kontzeptuak: Word 2016 testuen tratamendua, Excel 2016 kalkulu-orriak, espedienteen kudeaketa, Internet eta posta elektronikoa.

Tema 16.- Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langileria. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa. VII. titulua. Langile motak eta toki-araubidearen berezitasunak. Plantilla organikoa: edukia, onespena eta aldaketa, batez ere 233. eta 235. artikuluei dagokienez.

GAITEGI ESPEZIFIKOA:

Tema 17.- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa: atariko titulua, xedapen orokorrei buruzkoa, eta I. titulua, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

Tema 18.- Ordenantza, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua –Nafarroako Gobernutik Iruñeko Udalera transferitu dena– arautzen duten oinarriak eta haren prezio publikoak arautzen dituena.

Tema 19.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (EELZ) zerbitzu-karta.
Tema 20.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ): kontzeptua eta barne hartzen dituen zerbitzuak.
Tema 21.- Arreta integrala, pertsona erdigunean jarrita.
Tema 22.- Familia-langileak, eginkizunak, harremanak beste profesional batzuekin, harremanak erabiltzaileekin eta haien familiekin.
Tema 23.- Koordinatzaileak: EELZren barruko eginkizunak, harremanak familia-langileekin, beste profesional batzuekin, erabiltzaileekin edo haien familiekin.
Tema 24.- Autonomia pertsonaleko programako gizarte-langileak Iruñeko Udaleko auzo-unitateetan.
Tema 25.- Kode deontologiko profesionala eta etika profesionala gizarte-zerbitzuetan.
Tema 26.- Iruñeko Udalaren langileei eragiten dieten Kanpoko jokaera oldarkor eta agresiboei aurrea hartzeko protokoloa.
Tema 27.- Akordioa, 2007ko urtarrilaren 15ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboa onesten duena.
Tema 28.- 225/2002 Foru Dekretua, azaroaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru-konpentsazioak arautzen dituena.
Tema 29.- 116/1992 Foru Agindua, abuztuaren 17koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioek ohiz kanpoko orduetan lan egiteko behar diren muga eta betebeharrak ezartzen dituena.
Tema 30.- 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.
Tema 31.- 27/2011 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duena.
Tema 32.- 117/1985 Foru Dekretua, ekainaren 12koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Diziplina Erregelamendua onesten duena.
Tema 33.- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina: I. titulua, I., II. eta III. kapituluak, eta II. titulua
Tema 34.- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duena. I. titulua, II. kapitulua; eta II. titulua, I., II., III. eta V. kapituluak.
Tema 35.- Iruñeko Udaleko langile lan-kontratudunen 2019-2020ko hitzarmen kolektiboa.
Tema 36.- Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen akordio kolektiboa (2017-2019).
Tema 37.- 97/2024 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, arautzen duena nola baloratu merezimenduak Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko.
Tema 38.- Bazterkeria handiaren gaineko Iruñeko udal-programa arautzen duen ordenantza.
Tema 39.- Iruñeko udalerrian, gizarte-zailtasunak dituzten emakumeak eta haien seme-alabak artatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza.
Tema 40.- Adinekoendako gizarte-zerbitzuak arautzen dituen ordenantza.

Tema 41.- Iruñeko udal-apartamentuak izeneko zerbitzu publikoaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduaren behin betiko arautegia.

Tema 42.- Familietan esku hartzeko udal programa arautzen duen ordenantza, Iruñeko haurrak babestu eta sustatzeko jardueraren esparruan.

Tema 43.- MEPA teknikariaren (Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko teknikaria) konpetentzia sozialaren balorazioa

Tema 44.- Gizarte-trebetasunak eta gatazkak konpontzeko trebetasunak.

Tema 45.- Laneko arriskuen prebentzioa udal-administrazioan. 31/1995 Legea/ azaroaren 8koa: eskubideak eta betebeharrak, arriskuen ebaluazioa, prebentzio-plangintza, osasunaren zaintza, kontsulta eta parte-hartzea.

Tema 46.- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa: prebentzioa txertatzea, prebentzio-plana eta prebentzio-antolamenduaren modalitateak. Arrisku psikosozialei buruzko aipamen berezia, araudi tekniko espezializatua kontuan hartu gabe.

Tema 47.- Iruñeko Udalaren prozedurak eta protokoloak laneko jazarpenaren eta indarkeriaren aurrean. Laneko jazarpen moralaren eta aurkako jokaera oldarkorren aurkako protokoloa. Prebentzio- eta jarduketa-protokoloa sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurka. Protokoloa, LGTBI+ pertsonen aurkako jazarpenaren eta indarkeriaren aurrean jardutekoa Oinarrietan berariaz identifikatutako dokumentuen xedea, aplikazio-eremua, bermeak, eta jarduteko faseak.

Tema 48.- Lanpostuen analisia, deskribapena eta balorazioa. Eginkizunak, erantzukizunak, eskakizunak eta konpetentzia profesionalak. Lanpostuak deskribatzeko fitxak. Balorazio-metodoak eta -faktoreak. Antolaketako egiturarekin, plantilla organikoarekin eta ordainsari-araubidearekin duten lotura.

Tema 49.- Giza baliabideen planifikazioa: zenbat langile beharko diren aurreikustea, giza baliabideen eskaintzaren eta eskariaren analisia, eta, plantillak kalkulatzeko eta planifikatzeko teknika nagusiak.

Tema 50.- Langileen gaitasunen araberako hautaketa: kontzeptua, prozesuaren faseak, lanposturako egokitasuna ebaluatzeko metodoak eta tresnak.

Tema 51.- Langileen prestakuntza eta garapen profesionala. Prestakuntza-beharrak hautematea. Prestakuntza-planak prestatu eta gauzatzea. Prestakuntza-ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Prestakuntza lanpostuko zereginetara transferitzea.

Tema 52.- Jardunaren ebaluazioa. Helburuak, printzipioak eta irizpideak. Helburuen eta gaitasun profesionalen ebaluazioa. Adierazleak eta tresnak. Prozesuaren faseak, ebaluatzeko elkarrizketa, emaitzak jakinaraztea eta hobekuntza-planak.

Tema 53.- Laneko giroa eta barne-komunikazioa erakundeetan: kontzeptua, faktore erabakigarriak, ebaluazio-metodoak, komunikatzeko bideak eta lan-giroa hobetzeko estrategiak.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

II. ERANSKINA- MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Lan-esperientzia (15 puntu, gehienez)

1.1. Zainketen eremuko etxez etxeko laguntza- edo arreta-zerbitzuen zuzendaritza edo koordinazioa: Administrazio publiko batean edo erakunde publiko edo pribatu batean zerbitzua antolatzen, langileak koordinatzen eta gainbegiratzen, prestazioak esleitzen eta horien jarraipena egiten, eta gorabeherei arreta ematen metatutako esperientzia. 0,25 puntu lan horretan egindako hilabete bakoitzeko.

1.2. Arreta zuzeneko beste zerbitzu-gizarte batzuen zuzendaritza edo koordinazioa: Adineko pertsonei, administrazio publiko batean edo erakunde publiko edo pribatu batean mendekotasun-egoeran dauden pertsonei edo desgaitasunen bat duten pertsonei zuzendutako talde eta zerbitzuak antolatzen metatutako esperientzia, betiere koordinazio-eginkizunak deialdiko lanpostuarenekin parekatzeko modukoak badira. 0,10 puntu lan horretan egindako hilabete bakoitzeko.

Oharrak:

- Lan-aldi bakoitza behin bakarrik baloratuko da, erakunde motari eta benetan egiaztatutako eginkizunei dagokien atalean. Lanaldi partzialeko aldi bereko zerbitzuak baloratzeko, lanaldien ehunekoak batuko dira, aldi bereko zerbitzu-aldiaren % 100eraino gehienez ere, eta zerbitzu bakoitzari dagokion baremoa aplikatuko da. Muga hori gaindituz gero, konbinaziorik onuragarriena aplikatuko da.
- Esperientzia erakunde enplegatzailearen ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, datak, lanaldia, lanpostua eta benetan betetako eginkizunak adierazita. Horiez gain lan-bizitza ere aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emana.

2. Prestakuntza (5 puntu, gehienez)

2.1 Jasotako prestakuntza baloratuko da, baldin eta prestakuntza horren edukiak lotura zuzena badu Etxez Etxeko Arretako Udal Lantaldeko U(EEAL) arduradunaren lanpostuko eginkizunekin, honako gai hauei dagokienez:

- Gizarte-zerbitzuak, etxez etxeko arreta, autonomia pertsonala, mendekotasuna eta pertsona ardatz duen arreta integrala.
- Gizarte- eta zainketa-zerbitzuen antolaketa, planifikazioa, koordinazioa, gainbegiratzea eta ebaluazioa.
- Pertsonen zuzendaritza eta kudeaketa, taldeen antolaketa, plantillen planifikazioa eta langileen kudeaketa.
- Lidergoa, komunikazioa, trebetasun sozialak, bitartekaritza eta gatazkak konpontzea eremu profesionalean.
- Berdintasuna, laneko jazarpenaren eta indarkeriaren prebentzioa, eta laneko arriskuen prebentzioa.
- Kalitatea, etengabeko hobekuntza eta zerbitzuen ebaluazioa.

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

1 puntu emanen da prestakuntzako 25 ordu bakoitzeko. 25 ordutik beherako ikastaroak ez dira baloratuko, eta ezin izanen dira metatu gutxieneko hori baino iraupen laburragoko ikastaro independenteak.

Baloratuko dira: administrazio publikoek eta haien mendeko organismo edo erakundeek, unibertsitateek, profesionalen elkargoek, sindikatuek edo enpresa-erakundeek nahiz prestakuntza-helburuak edo jarduerak dituzten legez eratutako beste erakunde publiko edo pribatu batzuek antolatutako, emandako, homologatutako edo egiaztatutako ikastaroak.

Prestakuntza presentziala, urrutikoa,on-line nahiz erdipresentziala onartuko da, modalitatearen araberako puntuazio bereizketarik gabe, betiere egiaztatzen bada oinarri hauetan aurreikusitako moduan egin dela baldintzei eta irupenari dagokienez.

Prestakuntza egiaztatzeko, diploma, bertaratze-ziurtagiria edo dagokion erakundeak egindako aprobetxamendu-ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan honako hauek jaso beharko dira: parte hartu duen pertsonaren nortasuna, jardueraren izena, erakunde antolatzailea edo ziurtagiria eman duen arduraduna, ikastaroa noiz egin den edo noiz bukatu den eta guztira zenbat ordu iraun duen.

Ez dira baloratuko ordu kopurua egiaztatu gabe duten jarduerak. Iraupena kredituetan bakarrik zehazten bada, erakunde arduradunaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, prestakuntza-orduen baliokidetasuna adieraziko duena. ECTS kredituak ez dira automatikoki asistentzia- edo irakaskuntza-ordu bihurtuko.

Ez dira baloratuko:

- Titulazio akademiko ofizialen parte diren ikasketak eta irakasgaiak, eta sartzeko baldintza gisa eskatzen den titulazioa.
- Oposizioak edo beste hautaketa-prozesu batzuk prestatzeko eginiko ikastaroak.
- Kongresu, jardunaldi, topaketa edo dibulgazio-jardueretara joatea, ez badira programa eta iraupen jakin bat duten prestakuntza-ikastaro gisa egiaztatzen.
- Irakasle, hizlari, tutore edo antolatzaile gisa parte hartzea, atal honetan jasotako prestakuntza bakarrik baloratzen baita.